



BIZITZEA EZ AL DA OSO ARRISKUTSUA?

[Habanako gaukaria]

Joseba Sarrionandia

Upaingo 36

ISBN: 978-84-9172-074-4

Urtea: 2018 / 184 or.

13x19 cm

15,00 €

«Bizitza ez al da oso arriskutsua?». Esaldi horrekin hasi eta bukatzen du Joseba Sarrionandiak bere eguneroko hau. Testu laburrez eraikia, kartzelan idatzitako *Ni ez naiz hemengoa* gogoangarri haren moduan, egilea Kubatik ari zaigu orain, zintzo eta zuzen.

«Habanako gauak lasaiak izaten dira, auzokoren batek errime uzten du musika, katuek marruma egiten dute teilatuetan, tximista lehor batzuk ikusten dira hodeiertzean. Gaukaria berez bezala hasi zen osatzen halabeharrezko edo ustekabeko gaiekin: eguneroko bizimoduko momentuak, telebistako albistekak, lagun arteko enkontruak, ideien tolesdurak, liburu edo pelikularen batek probokatutako epifania txikiak...»

• • •

Joseba Sarrionandia Uribelarrea (lurreta, 1958)

Soziologia eta filologia ikasketak egin zituen. Kartzelan egon zen 1980tik 1985ra arte, eta geroztik, exilioan ibili da. Gaur egun Habanan bizi da eta hango unibertsitateko irakaslea da.

Euskal idazle honek obra ugaria eta kalitatezkoa idatzi du. Poesian, gogoangarriak dira: *Izuen gordelekuetan barrena* (1981), *Kartzelako poemak* (1992) eta *Hnuy illa nyha majah yahoo* (1995). Ipuingintzan, oso ezagunak dira: *Narrazioak* (1983), *Atabala eta euria* (1986) eta *Iparaldeko orduak* (1990). Mikroipuinetan: *Ez gara gure baitakoak*

(1989), *Han izanik hona naiz* (1992) eta *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk* (1995). Eleberriak ere idatzi ditu: *Lagun izoztua* (2001) eta *Kolosala izango da* (2003). Umeentzako irakurgai eta abestiak ere egin ditu: *Ainhoari gutunak* (1990), *Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak* (2008) eta *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* (2010).

Saiakeraren alorrean idatzi dituenetatik, oso interesgarriak dira: *Ni ez naiz hemengoa* (1985), *Marginalia* (1988), *Hitzen ondoeza* (1997), liburu bereziki handia den *Moroak gara behelaino artean?* (2010) eta *Lapur banden etika ala politika* (2015).

Liburu honetan, errealitate soziopolitikoari buruz hausnarketa kritikoa egiten jarraitzen du.



PAMIELA
argitaletxea

948 326 535 • www.pamiela.com • soltxate@pamiela.com